



Funtsezko baliabideak

Aguretxek egoitza bat izango du, Bilboko Ametzola auzoan kokatua. Bertan, gure jarduera egiteko beharrezkoak izango diren materialak izango ditugu, hala nola ordenagailuak eta bulego materiala.

Baliabide fisikoetaz gain, giza baliabideak beharko ditugu enpresa mantentzeko. Hasieran, 5 langile izango ditugu, baina denborarekin gehiago kontratatzeko asmoa dugu, agure gehiago sartzekotan. Gure langileak gazteak izango dira, lan esperientzia lortu nahi dutenak. Horrekin, agureen eta gazteen hautuemanana bultzatuko dugu, enpresa aurrera eramateaz gain.

Kanpoko arloan, IFAS-fundazioarekin jarriko gara harremanetan, gure sektoreko elkarte nagusia delako. Bertan, agureak entretenitzeko laguntzak eta ideiak jasoko ditugu.